

Euskal Autonomia Erkidegoko etxerik gabeko pertsonentzako zentroen sareak 2018. urtean 2016. urtean baino % 25,6 pertsona gehiago ostatatutako egunero batez beste


Euskal Autonomia Erkidegoak 56,2 milioi euro bideratu zituen kolektibo horrentzat, hots, Estatu osoko gastuaren % 19 eta 2016. urtean baino % 18,4 gehiago

Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-zerbitzuen sareak 2018. urtean 276 zentro eta zerbitzuz osatutako sare baten bitartez artatu zituen etxerik gabeko pertsonak. Egunero 2.979 pertsonari eman zien ostatu batez beste, 2016. urtean baino % 25,6 gehiagori, Eustatek landutako datuen arabera. Ostatu hartu zuten pertsona horien artean, 722 bat "etxegabeak" ziren, bizitegi-bazterketa larrian zeudenak. Sare horretan 2.583 langilek jardun zuten eta 56,2 milioi euroko gastua izan zuten, 2016. urtean baino % 18,4 gehiago.

Sareak 3.755 ostatu-plaza izan zituen, 2016. urtean baino % 28 gehiago, eta % 79,3ko okupazio-maila. Gainera, eguneko 1.914 plaza izan zituen, % 85,7ko okupazioarekin. Otorduei dagokienez, egunero 4.751 zerbitzu (gosariak, bazkariak eta afariak) eman ziren batez beste. Kaleko esku-hartzeari dagokionez, 15 talde arduratu ziren egunean batez beste 329 pertsona artatzeaz.

Laburbilduz, esan daiteke 2018. urtean Euskal Autonomia Erkidegoan etxerik gabeko pertsonak artatzeko zerbitzuak gastuaren igoera garrantzitsua izan zuela bereizgarri. Horrek baliabide gehiago ekarri zuen, bai azpiegiturei bai enpleguari dagokienez, eta, orobat, gora egin zuten artatutako pertsona kopuruak.

Euskal AEn etxerik gabeko pertsonentzako eta ostatu emandako pertsonentzako baliabideen bilakaera



Iturria: Eustat. Etxerik gabeko pertsonentzako baliabideen estatistika

Euskal Autonomia Erkidegoan Estatu osoko ostatu-plazen % 19 eskaini ziren

Etixerik gabeko pertsonak artatzeko euskal sarean bi ezaugarri nabarmentzen dira: euskal zentroyen tamaina txikiagoa eta zentro horietan lan egiten duten gizataldeen profesionalizazio handiagoa. Ildo horretan, kontuan izan behar da Euskal Autonomia Erkidegoan % 54 soldatako langileak direla eta % 37 boluntarioak, eta Estatuan zifra horiek % 37 eta % 56 direla, hurrenez hurren.

Baliabide horien erabilerari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko ostatu-zentroyetan egunero etxerik gabeko 2.979 pertsonak lo egin zuten batez beste, hau da, Estatu osoan lo egin zuten pertsona guztien (18.001) % 16,5 izan ziren.

Baliabideen lurralde-banaketa: hiriburuek kontzentratzen dituzte baliabide gehienak

Etixerik gabeko pertsonak hiri handietan kontzentratzeko joera dute. Hori dela eta, baliabideak ere hiru euskal hiriburuetan kokatu ziren gehienbat. Vitoria-Gasteizen Arabako ostatu-plazen % 98 eta otordu-plazen eta eguneko zentroyetako plazen % 100 kokatu ziren. Bilbaok Bizkaiko ostatu-plazen % 75,5, otordu-plazen % 76 eta eguneko zentroyetako plazen % 67,5 kontzentratu zituen. Gipuzkoako lurraldeak erakusten du lurralde-eredu deszentralizatuena. Izan ere, Donostia/San Sebastianen eskaini ziren ostatu-plazen % 55,7, otordu-plazen % 65,6 eta eguneko zentroyetako plazen % 41,8.

Zentroyen erdiek baino gehiagok zerbitzu hauek eskaintzen dituzte: informazioa, harrera, orientazioa, lagun egitea eta zerbitzu pertsonalak

Euskal Autonomia Erkidegoko zentroyen sare osoan hainbat prestazio eskaini ziren, etxerik gabeko pertsonen bizi-kalitatea hobetzera bideratuak. Autonomia-erkidegoko 276 zentroyen % 72,8k "informazioa eta harrera" zerbitzua eman zuten, % 65,2k "orientazioa eta bideratzea", % 63k "lagun egitea", % 36,2k "lanbide-orientazioa" eta zerbitzu pertsonalak, hala nola garbitasuna (% 50,4), ikuztegia (% 47,8) eta jantzitegia (% 25). Osasun-arretari, arreta psikologikoari eta juridikoari dagokionez, zentroyen % 18,1ek, % 34,4k eta % 32,2k eman zituzten, hurrenez hurren. Gainera, zentroyen % 36,6k Internet sarbidea eskaini zuten.

Artatutako pertsonen erdiak baino gehiago atzerritarrak izan ziren

Etixerik gabeko pertsonak artatzeko zentroyen erdiak egoera espezifiko zehatzik gabeko pertsonenganantz bideratuta zeuden, larrialdiko premietara egokitzen diren baliabideak dira-eta. Egoera espezifikoaren eraginpean dauden pertsonak artatzen dituzten artean, adikzioak —alkohola eta drogak— dituzten pertsonen zuzendutako zentroyak (% 38,8), immigranteen zuzendutakoak (% 33) eta genero-indarkeriaren edo gizakien salerosketaren biktimak diren emakumeak artatzen dituztenak (% 27) nabarmentzen dira.

Artatutako biztanleen sexuari dagokionez, zentro gehienak bi sexuetako pertsonen zuzenduta egon ziren (% 72,8), baina desberdintasunak ikusten dira lurralde historiko batetik bestera: Gipuzkoak izan zuen zentro mistoen proportziorik handiena (% 85,3), Arabak % 71,9 eta Bizkaiak % 64,1. Bizkaian zentroyen % 19 emakumeentzat bakarrik izan ziren eta Gipuzkoan eta Araban % 10 izan zen horien proportzioa.

Euskal Autonomia Erkidegoan artatutako pertsonen erdiak baino gehiago (% 52,1) atzerritarrak izan ziren. Lurralde-banaketa antzekoa izan zen: Araban % 55,8, Bizkaian % 54 eta Gipuzkoan % 48,2.

Gastu arrunta 56,2 milioi eurokoa izan zen, % 86,5 administrazio publikoek finantzatua

Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-zerbitzuen sarean etxerik gabeko pertsonak artatzeak 56,2 milioi euroko gastu arrunta ekarri zuen 2018. urtean, hots, 2016. urtean baino % 18,4 gehiago. Gastu horren gehiena (% 81,6) ostatu-zentroetara bideratu zen, 45,9 milioi euro gastatu baitzituzten. Horrek esan nahi du artatutako pertsona bakoitzaren urteko batez besteko gastua 15.392 eurokoa izan zela.

Administrazio publikoek —aldundiek eta udalek gehienbat— gastu horien % 86,5 finantzatu zituzten. Gainerakoa (% 13,5) erakundeen baliabide propioen (% 8,5), erakunde pribatuen (% 3,3), partikularren dohaintzen (% 1,4) eta enpresen (% 0,3) bitartez finantzatu zen. Finantzaketa-eredua antzekoa izan zen Bizkaian eta Gipuzkoan, finantzaketa publikoa % 84 izan baitzen. Araban, alabaina, ia finantzaketa osoa publikoa izan zen (% 97,8).

Zentroen sarean diharduten langile guztien % 70,5 emakumeak dira

2018. urtean 2.583 pertsonak lan egin zuten baliabide horietan; erdiak baino gehiago (% 54,5) soldatako langileak izan ziren eta % 37,2 langile boluntarioak. Soldatako langileak 2016. urtean baino % 26,3 gehiago izan ziren. Langile boluntarioen kopurua proportzio txikiagoan handitu zen (% 12,5). Gizarte-zerbitzuetan oro har gertatzen den moduan, enplegua emakumeena da gehienbat, eta emakumeen presentzia handiagoa da soldatako langileen artean (% 72,5) boluntarioen artean (% 66,8) baino.

722 etxegabek lo egin zuten aterpetxeetan eta eskakizun txikiko zentroetan; gehienak gizonak ziren

Ostatu-zentroetan gaua eman zuten 2.979 pertsonetatik, 722 batez beste, Euskal Autonomia Erkidegoan dauden 24 aterpetxe eta eskakizun txikiko zentroetan lo egin zuten "etxegabek" izan ziren; horietatik, 63 emakumeak ziren. Bestalde, etxebizitzarik gabeko 2.257 pertsona, batez beste, sareko zentro eta etxeetan bizi izan ziren; kopuru horretatik, 773 emakumeak ziren.

Etixerik gabeko pertsonentzako zentroen magnitude nagusiak Euskal Aen

	2018	2016	Δ(%)
Zentroak			
Ostatuarekin:	224	201	11,4
Aterpetxeak eta exijentzia baxuko zentroak	24	18	33,3
Plazak			
Ostatu-plazak:	3.755	2.933	28,0
Aterpetxe eta exijentzia baxuko zentroetan	850	439	93,6
Errestaurazio-plazak:	2.868	2.017	42,2
Gizarte jantokietan	1.264	830	52,3
Ostatu hartutako etxerik gabeko pertsonak	2.979	2.372	25,6
Aterpetxe eta exijentzia baxuko zentroetan	722	396	82,3
Errestaurazio-zerbitzuak	4.751	3.205	48,2
Langileak	2.583	2.112	22,3
Soldatakoak	1.409	1.116	26,3
Boluntarioak	960	853	12,5
Beste batzuk	214	143	49,7
Funtzionamendu gastuak (milaka eurotan)	56.195	47.455	18,4
Finantzazio publikoa (%)	86,5	84,7	1,8 (*)
Gastua/Biztanleko (eurotan)	25,8	21,8	18,1

(*) portzentajezko puntuak

Oharra: Plazak eta betetzea dagozkio ekainaren 15eko eta abenduaren 14ko batezbestekoari
Iturria: Eustat. Etixerik gabeko pertsonentzako baliabideen estatistika

Estatistika-eragiketa hau Eustatek egin du Estatistikako Institutu Nazionalarekin (INE) lankidetzan Euskal Autonomia Erkidegoan

Ohar metodologikoa: *etxerik gabeko pertsonatzat hartzen da, inkesta honen ondorioetarako, erreferentziako aldian eskuarki onartutako gizakientzako bizigarritasun-irizpideak betetzen dituen bizitokia irispidean ez duen 18 urtetik gorako pertsona, bai bizitokia legez bere jabetzako bada bai alokatua bada, edo doan okupatua (sektore publikoak edo gobernuz kanpoko erakundeek eskainitakoak eta enplegatzaileek eskainitakoak barne). Beste zenbait egoeraren artean jasotzen dira adikzioak dituzten pertsonak, migratzaileak eta nazioarteko babesa eskatu dutenak, tutoretzapean egon diren gazteak eta genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak, segurtasuna bermatzeko beren ohiko etxebizitzatik irten behar dutenak.*

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa Zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62